

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (9, 10, 11...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

IRUZURRAK UGARITU EGITEN DIRA INTERNETEN OPOR GARAIAN

Bidaia egiteko eskaintza tentagarriak iruzurra izaten dira askotan Interneten. Hori dela eta, kontsumitzaileen elkarteek uda honetan salaketek gora egin dutela adierazi dute.

Gero eta gehiago kontsumitzen dute erabiltzaileek Interneten eta turismoa izan da esparru horretan arrakasta gehien lortu duen sektorea. **9**

Ostatu hartzeko eskaintza erakargarriak eta bidaiaitzeko txartel merkeak dira sarean topatu ditzakegun tentazioak, baina fidagarriak al dira?

Oporretarako apartamentu bat alokatzean izaten dira, gehienbat, iruzurrak. **10** Kontsumitzaileak askoz ere babes txikiagoa du Interneten eta, hori dela eta, ezinbestekoa da etxea alokatu aurretik argazkiak eta lekuari buruzko ezaugarriak eskatzea, salaketa egin behar izanez gero, dokumentazio hori behar izango baita. **11**

Delituak dira, dirua irabazteko asmoa dagoelako; eta, hortaz, engainatu bagaituzte, lehenik eta behin polizia-etxe batean edo guardiako epaitegi batean salaketa jarri behar da, baina beti jatorrizko herrian.

12 Maiatzean, Tortosan (Tarragona) bizi zen Pedro Marti Alcantarak bere web-gunean bidaia kontratatu zuten pertsonen mezu elektroniko bat bidali zien. Mezu horretan budisten festa batengatik gestioak atzeratu beharko zituela adierazi ondoren, web-gunea itxita zegoela esan eta desagertu egin zen. Guztira, 700.000 euro baino gehiagoko iruzurra egin du Martik. **13** Martik eta emazte tailandiarrek merkatuko preziorik merkeenak eskaintzen zituzten, baina zerbitzua ez zen fidagarria.

Azkenaldian Interneten aipatzen ari den beste iruzur bat *Turypeople* web-gunearena da. Hainbat ataritan iruzkin onak irakur daitezkeen arren,

gero eta erabiltzaile gehiago ari dira iruzurra salatzen. **14** Web-guneko langile batekin harremanetan jarri eta bazkidea izateko ordainketa egin ondoren, bazkideak gida bat jasotzen du etxean, baina erreserbak egitean, gidako eta web-guneko eskaintzak ez datoz bat. Bezeroaren arretarako telefonoan eskaintza egin dien komertziala nor den ez dakitenez, laguntzeko aukerarik ez dagoela adierazten diote eta gidakoa onartu behar dute.

Bestalde, Interneten kontratatutako hegaldiei dagokienez, gomendagarria da maleten eta eserlekuaren erregistroa eta fakturazioa sarearen bidez egitea. Izan ere, dirudienek, aire-linearen batek sal ditzakeenak baino txartel gehiago saldu ditu. **15**

Ezinbesteko arrazoiengatik ez bada (eguraldi txarra, adibidez), aire-linea da bidaiariak izan ditzakeen kalteen erantzulea. **16**

Interneteko konpainiek erreklamazioak ordaintzea nahiko zaila izaten da, baina erabiltzaileen elkarteek kontsumitzaileen eskubideak betetzea eskatzearen garrantzia nabarmentzen dute.

<eitb.com>, 2011ko abuztua. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- A. Uda honetako kasurik ezagunenetakoa *Siente Tailandia* web-gunearena izan da; izan ere, iruzur horrek 1.000 pertsonari egin die kalte.
- B. Horregatik, kontsumitzaileak helmugara iristeko konponbidea eskatzeko eskubideaz gain, konpainiak kalte-ordaina ordaindu behar dio.
- C. Kontsumitzaileak etxea benetan alokairuan utzi dion pertsonarena dela konprobatu behar du, hori frogatzen duten dokumentuak lortuz.
- D. Gauzak horrela, gure oporrak antolatu baino lehen ezin dugu ahaztu ohiko bideak seguruagoak direla Interneteko iruzurrak saihesteko.
- E. Kaltedunetako batzuek 300 euro galdu dituzte; beste batzuek, berriz, bidaia osoa erosi zutenez, 1.200 euro.
- F. Hala ere, kontu handiz ibili behar da sarean, gero eta iruzur gehiago egiten ari baitira Interneten saldutako bidaietan.
- G. Horrez gain, hasieran ez da dirurik bidali behar eta, eskatzen badigute, ohiko ordainketa-bideak erabiltzea gomendatzen dute, bertan agertuko baita zer alokatu dugun eta zenbat denborarako.
- H. Dirudienez, web-guneko kide egiteko, kontsumitzaileek 100 euro ordaintzean, bidaia-txartelak eta ostatua hartzeko eskaintza bereziak lortzeko aukera dute.
- I. Hau da, fakturatzeko konpainiak hegaldia beteta egonda, bidaiariari beste hegaldi batean jarriko dutela adieraz diezaioke.

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan, eta ez ahaztu erantzun-orrira pasatzea:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								